



# PROGRAMA ORIENTAGARRIA



# HERRITARTASUN KRITIKORAKO ESKOLA



## ANTOLATZAILEAK:



**Deusto**

Centro de Ética Aplicada  
Etika Aplikatuko Zentroa



**ALBOAN**

ONGD promovida por los jesuitas  
Jesuitek bultzatutako GKE

## LAGUNTZAILEAK:



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



## AUZKEZPENA

“**Herritarren partaidetza eta gizarte-aldaketa**” programak pertsona eta profesional moduan presatzeko gonbita luzatzen dizu, esperientzia osoa egiteko, diziplina arteko ikuspegitik. Esku artean duzun proposamenak gizarte mailan garrantzi handia duten gaiak biltzen ditu, herritartasuna, partaidetza arduratsua eta gizarte-aldaketa, besteak beste.

Prestakuntza programa horrek bizitzan garrantzizko izango dituzun hiru arlotan sakontzeko modua emango dizu: justizia sozialean, elkarte esparruan eta pertsona moduan hazi eta norbere barrua lantzean.

Ezagutzak jaso ez ezik, beste gazte batzuekin eztabaidatzeko aukera ere izango duzu gizarte arloko kezkez, egon daitezkeen irtenbideez; eta gizarte mailako ekimenak praktikan jarri ahal izango dituzu. Guk geure aldetik, lagundu egin nahi dizugu prestakuntza prozesu horretan. Herritartasun kontzeptuan sakontzeko eta kontzeptuaren funtsak ezagutzeko espazio bat da hau, herritarren partaidetzaren inguruan hausnartzeko eta gizarte bidezkoagoak eratzeko.

Egin bat prestakuntza-ekintzako esperientzia honekin, ezagutu eta partekatu beste pertsona batzuekin. Egizu bat aldaketarekin!

## NORI DAGO ZUZENDUTA?

“**HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTE-ALDAKETA**” programak pertsona gazteei zuzenduta dago, 22 eta 35 urte bitartekoak eta herritar-prestakuntzan eta konpromisoan sakondu nahi dutenei. Gizarte edota eliz espazioetan inplikaturik dauden gazteei.

**Programa hau zuretzat da, baldin eta...**

- Beste pertsona batzuekin konprometitzen bazara, taldean lan egitea eta ardurak hartzea gogoko baduzu.
- Pertsona solidarioa, gizarte mailan sentibera eta errealitatearekin inplikatzeko zarena bazara.
- Zure barnetasuna lantzerik irekita bazaude.
- Zeure burua ezagutu, onartu eta zure bizitzako egitamu baten bila bazaude.

## HELBURUAK

- Errealitatearen irakurketa kritikoa egitea; eta, horretara, gaur egungo munduko gizarte, ekonomia, politika eta kultura dinamiken inguruan hausnartzea.
- Herritartasun kontzeptuan sakontzea, kultura demokratikoa eratzeko funtsezko gakoaren inguruan hausnartzea.
- Norbere burua ezagutzea sustatzea, beste pertsonekin jokabide kontzientea eta solidarioa izateko.
- Herritartasun konprometitua, arduratsua eta parte hartzailea sustatzea, gizarte bidezkoago, anai-korrago eta solidarioagoa eratzen ekarpena egin nahi duten gazteen artean.

# PROGRAMA ETA EDUKIAK

Programa malgua izateko diseinatuta dago. Ikastaroaren orduak (150 ordu) aurrez aurreko saioen bidez eta online formakuntzaren bidez garatzen dira. Aurrez aurreko saioak hurrengoia barne hartzen du: aurrez aurreko saioak, asteburuak, ikasleen jarraipen indibiduala eta ikasle bakoitzak zehaztutako esperientzia praktikoa.

## ORDUTEGIAREN BANAKETA:

- Topaketa presentzialak astegunetan: 24 ordu (3 orduko 8 saio).
- Topaketa presentzialak larunbatetan: 12 ordu.
- Bi asteburu Loiolan; 24 ordu.
- Jarraipen indibidualizatua: 12 ordu.
- Esperientzia praktikoa: 33 ordu.
- Online formakuntza: 45 ordu (testuen irakurketa, bideoak ikusi, lan pertsonala...).

## EGUTEGIA

MULTZOA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA
1. ATARIKO SAIOA	-3 ordu presentzial -2 ordu elkarrizketa							
2. HERRITARRA		-15 ordu presentzial -7 ordu online						
3. ZER HERRITAR-TASUN-MOTAZ ARI GARA?			-6 ordu presentzial -2 ordu elkarrizketa -13 ordu online					
4. TESTUINGURU GLOBALAREN ETA TOKIKOAREN ERRONKAK				-12 ordu presentzial -2 ordu elkarrizketa -5 ordu online				
5. DEMOKRAZIA, JUSTIZIA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA					-6 ordu presentzial -2 ordu elkarrizketa -7 ordu online			
6. INTERKULTURALTASUNA, BIZIKIDETZA ETA ERLIJO ARTEKO ELKARRIZKETA						-6 ordu presentzial -2 ordu elkarrizketa -7 ordu online		
7. LIDERGO KONPROMETITUA							-12 ordu presentzial -2 ordu elkarrizketa -8 ordu online	
8. HERRITARREN PARTAIDETZAKO MODULUA								-33 ordu esperientzia praktikoa

# 1. MODULUA. ATARIKO SAIOA

## HELBURUAK:

1. Prestakuntza-prozesu honen helburuak eta metodologiak jakitera ematea.
2. Taldekideek elkar ezagutzeko oinarriak jartzea, kide guztiak taldera egin daitezen eta lankidetzan aritzea errazago gerta dakiekeen.

## EDUKIAK:

### 1. Programaren helburuak, egutegia eta metodologia aurkeztu

HKEren HELBURU NAGUSIAK:

1. Partaideei zenbait baliabide eta tresna ematea, norberaren komunitatean zentzu kritiko, partizipatibo eta arduratsuan garatu ahal izan daitezen, norberaren ingurunearen ezaugarrien arabera.
2. Parte-hartze sozial, aktibo eta arduratsua sustatuko duen prestakuntza-prozesu bat egitea, modu solidarioan ingurunea aldatzeko, norberaren ekimenen edo komunitateko ekimenen bidez.
3. Partaideen topaleku eta gogoetarako toki izango diren guneak dinamizatzea, gizarte justu eta solidario batek oinarri izango dituen balioak sendotzeko.

## METODOLOGIAK:

- \* Arreta pertsonalizatua eta laguntza. Jarraipen pertsonala tutoretzen bidez elkarriketak egiteko, ikaskuntza-prozesuan laguntza emateko eta edukietan sakontzeko.
- \* Ikaskuntza-prozesuaren eta esperientziaren pertsonalizazioa.
- \* Dinamika presentzialak; batzuk, azalpenezkoagoak.
- \* Taldeko dinamika praktiko eta partizipatiboak.
- \* Testigantzak.
- \* Etxeko lana eta onlineko plataforman konektatzea, lanen jarraipena egiteko eta irakaslea eta ikaslea harremanetan jartzeko.

### 2. Baliabideak aurkeztea:

- a. Onlineko plataforma ([www.formacion.alboan.org](http://www.formacion.alboan.org)).
- b. Laguntza / tutoretzak.
- c. "Koadernoak", ibilbidean zehar nor bere esperientzia jasotzeko.
- d. Boluntario-lanak.

### 3. Taldekideek elkar ezagutzeko eta taldera egiteko dinamikak:

- a. Aurkezpen pertsonalak.
- b. Motibazioak.
- c. Zer da, zure ustez, herritartasuna? Zer herritartasun-mota duzu amets? Zer balio izango lituzke herritartasun horrek oinarri? Nola eraikiko genuke?

### 4. Oinarriko kontzeptuak eta eginkizunak aurkeztea:

- a. Kontzeptu hauek aurkezteko eta partaideei pentsarazteko flashak:
  - i. Herritartasun aktiboa eta herritarren parte-hartzea.
  - ii. Bizikidetzak multikulturalak.
  - iii. Balioak eta Giza Eskubideak.

1. modulua		Estrategiak	
Atariko saioa	Dinamika presentziala – Ikasgela – Asteguna	3 ordu	Saio bat, hiru ordukoa
	Elkarriketa, laguntzaile edo tutorearekin	2 ordu	Elkar ezagutzea eta aurreneko harremanetan jartzea, ibilbide pertsonalizatua hasteko
ORDUAK GUZTIRA	3: presentzialak - 2: elkarriketa		

## 2. MODULUA. HERRITARRA

### HELBURUAK:

1. Nork bere burua ezagutzea edo autoezagutza sustatzea, beste pertsonekin praktika solidarioa eta kontzientea izan ahal izateko.
2. Partaideen alderdi soziala eta harremanetakoa garatzea, gizartearekiko konpromisorantz joateko.

### EDUKIAK:

1. Sarrera: herritartasunerako gaitasunak.
2. Nire historia: (Nor naiz?- Autobiografia).
3. Autoezagutza: nire balioak, nire talentuak eta nire mugak.
4. Pertsonaren alderdi soziala eta harremanetakoa: norberarekiko eta besteekiko.
5. Pertsonaren alderdi emozionala.
6. Mundu justuago baten aldeko konpromisoa.

### METODOLOGIAK:

#### a) Prestaketa-lana.

1. Aurreneko saiorako aurrez irakurri beharrekoak:

- Herritartasunerako gaitasunak.
- Adimen emozionala.
- Justiziaren aldeko konpromisoa

2. Asteburuko saiorako aurrez egin beharrekoak: 4 ordu.

Nire historia: Amin Malouff irakurri, eta norberaren autobiografia egin identitateez, jatorriez, hizkuntzez, kulturez, ohiturez... Nor naiz? Nola definitzen dut neure burua?

#### b) Egun bat – saio bat, hiru ordukoa. Ikasgela. Azalpena eta dinamikak.

1. Moduluaren azalpena. Herritartasunerako gaitasunak eta helburuak.

- Alderdi intrapertsonala: adimen emozionala eta adimen espirituala.
- Alderdi interpertsonala:
- Justiziaren aldeko konpromisoa: bestearekin harremanetan egoteko jarrerak (entzutea, enpatia, arreta).
- Koadernoak: zer ikasi dut? Zertaz ohartu naiz, nire izateko moduz?

#### c) Asteburuko topaketa (larunbata eta igandea): Dinamika partizipatiboak.

- 1) Autoezagutza: alderdi intrapertsonala.

- Nire historia, nire izenak, nire esperientziak. Naizen bezalakoa naiz, honi esker:...
- Nire balioak, nire talentuak eta nire mugak.
- Eneagrama.
- Barnekotasunerako dinamika (ariketa: erlaxazioa – kontenplazioa).

- 2) Autoezagutza: alderdi interpertsonala.

- Natura kontenplatzeko ariketa. Entzuteko ariketa edo zentzumenena.
- Gatazkak konpontzea.
- Aurreiritziak eta interkulturaltasuna.
- Koadernoak: zer ikasi dut? Zertaz ohartu naiz, nire izateko moduz?

### 2. modulua

### Estrategiak

Herritarra	Onlineko dinamika – Etxeko lana	7 ordu	Aurretiatzko irakurgaiak eta tarteko saioak, saio presentzialetarako atariko testu batzuekin.
	Dinamika presentziala – Ikasgela – Asteguna	3 ordu	Arratsalde bat, hiru ordukoa.
	Taldeko dinamika – Larunbata + Igandea	12 ordu	Asteburua. Adimen emozionalari buruzko tailerra.
ORDUAK GUZTIRA	15: presentzialak - 7 on-line		

# 3. MODULUA. ZER HERRITARTASUN-MOTAZ ARI GARA?

## HELBURUAK:

1. Herritartasun kontzeptuak historian zehar zer-nolako bilakaera izan duen jakitea.
2. Herritartasun kontzeptuaren barruan zer alderdi sartzen diren hausnartzea eta eztabaidatzea.

## EDUKIAK:

### 1. Zer esan nahi du herritar izateak?

- Herritartasun nozioa.
- Herritartasun-ereduak.
- Eskubideak, kide izatea eta parte hartzea.

### 2. Duintasuna eta Giza Eskubideak.


- Oinarri filosofikoak, labur-labur.
- Giza Eskubideen belaunaldi bakoitzaren ezaugarriak: balorazio kritikoa.

### 3. Generoa eta herritartasuna: feminismoaren bilakaera historian.

- Feminismoa, ilustrazioaren nahi gabeko alaba: hizkuntza iraultzaileak hitzen adierak berregokitu zituenekoa.
- Giltzarri diren eslogan batzuk: "inor ez da emakume jaiotzen, egin egiten gara emakume", "izenik gabeko arazoa" eta "pertsonala den oro politikoa da".
- Desberdintasuna edo berdintasuna, amaigabeko eztabaida, postmodernismoak eta multikulturalismoak zeharkatua.
- Alternatiba ekofeministak.
- Ziberfeminismoak.

## METODOLOGIAK:

- Aurretiazko lana etxean, 5 ordu ingurukoa, Javier Peñaren "Herritarrak" (2008) testua ikasteko.
- Bi saio presentzialetan (6 ordu), azalpenak emateaz gain, taldeko dinamika bat egingo da tartean.
- Ondorengo lana etxean, 5 ordukoa, saiakera kritiko labur bat egiteko.
- Partaideei lagundu egingo zaie norberaren esperientziarako boluntario-lana aukeratzen, bilaketa aktiboa egin eta hautaketa hausnartuz eginez.



### 3. modulua

### Estrategiak

Zer herritartasun-motaz ari gara?	Onlineko dinamika – Etxeko lana	5 ordu	Herritartasunari buruzko irakurgaiekin hasia, eta gaiari buruzko jarduera batzuk egitea, oinarriko kontzeptuak errazago ikasteko eta gero eztabaidatu ahal izateko.
	Dinamika presentziala - Ikasgela	6 ordu	Bi saio, hiruna ordukoak.
	Dinamika pertsonala	3 ordu	Norberaren esperientziarako gune egokiak bilatzea.
	Elkarrizketa, laguntzailer edo tutorearekin	2 ordu	Aurreneko moduluen jarraipena eta esperientzia-eremua zehaztea.
	Onlineko dinamika – Etxeko lana	5 ordu	Herritartasunari buruzko irakurgaiak eta lana. Etxean egiteko jarduera espezifikoak.
<b>ORDUAK GUZTIRA</b>	<b>6: presentzialak - 2: elkarrizketa - 13: ez-presentzialak</b>		

## 4 MODULUA. TESTUINGURU GLOBALAREN ETA TOKIKOAREN ERRONKAK

### HELBURUAK:

1. Errealitate globalaren eta tokikoaren irakurketa kritikoa egitea.
2. Gure mundua egituratzen duten prozesu ekonomiko, politiko, sozial eta kulturei buruzko gogoeta egitea, eta ohartzea prozesu horien zer ezaugarri balio dezaketen mundua hobetzeko.

### EDUKIAK:

#### 1. Errealitateari begiratzea.

- Errealitate sozialaren azterketarako hastapena: egiturak, eragileak, datuak eta interpretazioak.
- Globalizazioa: historia, globalizazioaren alderdi ugariak, eta globalizazioaren protagonistak eta antagonistak.
- Mundu globalizatua: abaguneak, arazoak eta erronkak.
- Garapenari buruzko gaur egungo eztabaida: desparekotasunak eta ingurumena.
- Erronka eta interes komun eta dibergenteak Iparraldean eta Hegoaldean: merkataritza, giza higortasuna, klima-aldaketa.

#### 2. Errealitatea baloratzea.

- Ekonomizismoa, teknokrazia, neoliberalismoa eta populismoa.
- Aldaketa soziala eta boterea: nork dauka boterea eta nola erabiltzen du.
- Gure munduari buruzko irakurketa etikoa.

#### 3. Ekitea.

- Garapen alternatiboa edo garapenarekiko alternatibak: erreforma, iraultza eta trantsizioak.
- Alternatiba ekonomikoak: behetik eta goitik.
- Alternatiba politikoak: parte-hartzea, tokikoaren eta globalaren arteko loturak, eragileek eraikitzea eta instituzioek eraikitzea.
- Elkartasunaren eta Giza Eskubideen kultura bat eraikitzea.


### METODOLOGIAK:

Modulu honetan "begiratu, baloratu, ekin" metodoa erabiltzen da, partaideei errealitateari buruzko begirada analitiko eta kritikoa bat eraikitzen laguntzeko.

Zenbait teknika erabiliko ditugu batera: azalpena, taldeko dinamikak eta bakarlana.

Azkenik, modulu honetan 5 orduko lana egin behar da online. Partaideek errealitateari begiratzeari buruzko irakurgai osagarriak aztertuko dituzte, tokikoaren eta globalaren arteko loturak ulertzen laguntzeko edukiak eta ikuspegiak bereganatzeko, eta hurrengo moduluko eztabaidara (demokraziari eta parte-hartzeari buruzkoa) hurbiltzen hasteko.

Programaren egutegian honaino iritsita, partaide bakoitzak jarraipenerako beste elkarrizketa bat izango du norberaren laguntzailearekin.



#### 4. modulua

#### Estrategiak

Testuinguru globalaren eta tokikoaren erronkak	Taldeko dinamika – Ikasgela – Larunbatak	12 ordu (6+6)	
	Onlineko dinamika – Etxeko lana	5 ordu	Errealitateari begiratzeari buruzko irakurgai osagarriak, edukiak eta ikuspegiak bereganatzeko.
	Elkarrizketa, laguntzaile edo tutorearekin	2 ordu	Jarraipeneko elkarrizketa norberaren laguntzailearekin.
ORDUAK GUZTIRA	12: presentzialak - 2: elkarrizketa - 5: ez-presentzialak		



## 5. MODULUA. DEMOKRAZIA, JUSTIZIA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

### HELBURUAK:

1. Kultura demokratiko bat eraikitzeko funtsezkoak diren kontzeptuak ezagutzea eta haiei buruzko gogoeta egitea.
2. Herritarrek parte hartzearen garrantziaz eta gizarte ekitatiboagoak eraikitzearen garrantziaz gogoeta egitea.

### EDUKIAK:

#### 1. Demokrazia, sistema politiko gisa.

- Demokrazia modernoaren jatorria.
- Demokraziaren oinarriak eta instituzioak.
- Demokrazia-motak: ordezkartzeko demokraziatik demokrazia deliberatibora.

#### 2. Justizia, etikaren ikuspegitik.

- Justizia, instituzio publikoen bertute gisa.
- Justiziari buruzko gaur egungo teoria batzuk: eztabaida nagusiak (Nancy Fraser eta Iris Marion Young).
- Justiziaren erronkak gaur egungo testuinguruan: eremu sozialean, berdintasunik eza; eremu politikoan, inklusioa eta justizia globala.

#### 3. Herritarren parte-hartzea eta bizikidetzeta.

- Zer da herritarren parte-hartzea?
- Herritarren parte-hartzea eta demokrazia.
- Bizikidetzaren erronka mundu garatuko gizarte multikulturaletan.

### METODOLOGIAK:

Modulu honetako saioak azalpenezkoak, bakarlanekoak eta taldeko dinamikakoak izango dira. Kasu-azterketaren bat erabiliko da, eztabaidarako eta gogoetarako bide eman dezan. Partaidetzazko ekimen zehatz batzuk aurkeztuko ditugu, partaideak haiekin identifikatzeko edo inplikatzeko modukoak.

Saio presentzialak onlineko lanarekin indartuko dira, modulu honetan landutako oinarrizko kontzeptuak aztertzeko, batetik, eta hurrengo moduluarekin lotzeko, bestetik. Gainera, jarduerak egingo dira, osagarri gisa (demokrazia suspertze aldera gaur egungo erronkei buruzko norberaren gogoetak azaltzea, idatziz, saiakera edo idazlan baten bidez).



### 5. modulua

### Estrategiak

Demokrazia, justizia eta herritarren parte-hartzea	Dinamika presentziala – Ikasgela – Asteguna	6 ordu	Bi saio, hiruna ordukoak.
	Onlineko dinamika – Etxeko lana	5 ordu	Moduluan landutako oinarrizko kontzeptuak finkatzea. Osagarri gisa, jarduerak (demokrazia suspertze aldera gaur egungo erronkei buruzko norberaren gogoetak azaltzea, idatziz, saiakera edo idazlan baten bidez).
	Elkarrizketa, laguntzaile edo tutorearekin	2 ordu	Jarraipeneko elkarrizketa norberaren laguntzailearekin.
<b>ORDUAK GUZTIRA</b>	<b>6: presentzialak - 2: elkarrizketa - 5: lana online</b>		



# 6 MODULUA. INTERKULTURALITASUNA, BIZIKIDETZA ETA ERLIJIO ARTEKO ELKARRIZKETA

## HELBURUAK:

1. Gure gizartean erlijioaren eta politikaren artean dauden loturei buruz zer eztabaida dauden jakitea.
2. Kristauen proposamenari buruz eta herritarren konpromiso politikoaz eztabaidatzea.

## EDUKIAK:

### 1. Kultura eta gizartea.

- Kulturaren definizioa.
- Aniztasuna kudeatzeko ereduak: etnozentrismotik interkulturalismora.
- Arrazakeria-modu berria: migratzaileei buruzko zurrumurruak eta estereotipoak.

### 2. Interkulturaltasuna, etika eta herritartasuna.


- Herritar demokratikoaren ethos-a.
- Eraikuntza kulturalak gizarte demokratiko eta pluraletan.

### 3. Erlijio arteko elkarrizketa.

- Pluralismoaren aitortza politikoaren jatorria eta bilakaera.
- Erlijio-aniztasunaren mapatze soziologikoa eta ikuskeraz sozialak.
- Erlijio arteko elkarrizketak zer lor dezakeen eta zer muga dituen: esperientzia zehatz batzuk.

## METODOLOGIAK:

Saio presentzialak hiruna ordukoak izango dira, eta guztietan zenbait teknika erabiliko dira batera: azalpena, taldeko dinamikak eta testigantzen aurkezpena.



6. modulua	Estrategiak		
Interkulturaltasuna, bizikidetzaz eta erlijio arteko elkarrizketa	Dinamika presentziala – Ikasgela – Asteguna	6 ordu	Bi saio, hiruna ordukoak.
	Onlineko dinamika – Etxeko lana	7 ordu	Norberaren proiektu-proposamena prestatzeko (laguntzailearen laguntzaz); programako azken saioan zehaztuko eta itxiko da.
	Elkarrizketa, laguntzaile edo tutorearekin	2 ordu	Jarraipeneko elkarrizketa norberaren laguntzaileekin.
<b>ORDUAK GUZTIRA</b>	<b>6: presentzialak - 2: elkarrizketa - 7: ez-presentzialak</b>		

# 7. MODULUA. LIDERGO KONPROMETITUA

## HELBURUAK:

1. Hausnartzea, partaide izanda izan duen esperientziatik abiatuta, gizartea eraldatzearen zerbitzura norberaren hazkuntza pertsonalarekin konpromisoak hartzeaz eta norberaren lidergoaren ezaugarriez.
2. Prestakuntza-prozesutik ateratako ikaskuntza nagusiak eta hartutako konpromiso nagusiak besteekin partekatzea.

## EDUKIAK:

### 1. Lidergoa eta zerbitzua.

- Norberaren lidergo-modua.
- Lidergo kolaboratiboa.
- Lidergo femeninoa.
- Lidergoa, pertsona pobre eta baztertuen zerbitzura aritzeko aukera gisa.

### 2. Hazkuntza pertsonala eta herritar-ekintza (Besteentzat eta besteekin izatea).

- Nire ibilbide pertsonala eta profesionala aztertzea.
- Zerbitzatzea: nondik eta zertarako?

### 3. Sintesi-prozesua aurkeztea eta ebaluazio pertsonala.

- Norberaren prozesuko ikaskuntzak eta sintesia.
- Proiektu bat azaltzea, herritartasun arduratsu baterako oinarritzko elementuak dituen. Programan koordinazio-lanetan dabiltzanek lagundu egingo diote partaideari proiektua egiten, eta norberaren laguntzailearekin batera egingo dute, gainera, gogoeta egiten laguntzeko.

## METODOLOGIAK:

Asteburuko topaketa izango da modulu hau (larunbat osoa eta igande goiza), eta bi alderdi landuko dira: batetik, lidergoari buruzko oinarritzko edukiak, eta bestetik, norberaren eta gizartearen eraldaketarekin duen lotura.

Metodologiaren aldetik ere zenbait alderdi hartuko dira kontuan: alderdi intelektuala, afektiboa eta harremanetakoak. Partaideak introspekzioko dinamika batean zehar gidatuko ditugu, bai eta eraikuntza eta truke kolektiboko dinamika batean zehar ere.

Azkenik, modulu honen helburu da proiektu pertsonal bat eraikitzea, bai prozesu pertsonala eta bai taldeko prozesua amaitzeko. Proiektuak zenbait jarraibide ditu oinarrian, eta partaideei garaiz emango zaie jarraibide horien berri, prestakuntza-prozesu honetan landutako alderdi guztiak kontuan izan ditzaten. Programa honen koordinatzailea arduratuko da, partaide bakoitzaren laguntzailearekin batera, proiektuak aztertzeaz, gero ebaluatu ahal izateko.

## 7. modulua

## Estrategiak

Lidergo konprometitua	Taldeko dinamika – Asteburua	12 ordu	Asteburuko topaketa (larunbat osoa eta igande goiza); edukiak landu, gogoeta egin, eta talde-lana egingo da.
	Elkarrizketa laguntzaile edo tutorearekin	2 ordu	Norberaren proiektua aztertzea, ikaskuntzak eta konpromisoak ateratzeko.
	Onlineko dinamika – Etxeko lana	8 ordu	Norberaren proiektua egitea eta online bidez lana koordinatzaileari eta norberaren laguntzaileari bidaltzea, feedbackerako eta ebaluatzeko.
ORDUAK GUZTIRA	12: presentzialak - 2: elkarrizketa - 8: ez-presentzialak		

## 8. MODULUA. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESPERIENTZIA

### HELBURUAK:

1. Errealitatean esku hartzeko gaitasunetan trebatzea, praktika teoriarekin, gogoetarekin eta ekintzarekin estu lotuz.
2. Gizarte-erakunde batean murgiltzeko eta laguntzen aritzeko esperientzia praktikoa bizi izatea, partaideak aukera izan dezaten prestakuntza-prozesuan bereganatutako ezagutzak eta trebetasunak praktikan ikusteko, bai eta bestelako baliabide eta jarrera batzuk bereganatzeko ere, betiere prestakuntza-plan honen sustatzen duen herritartasun-ereduaren arabera.


### METODOLOGIAK:

Modulu hau gehienbat praktikoa da, eta prestakuntza-plan osoan zehar landuko da, 2. modulutik aurrera. Partaideek gizarte-erakunde batean murgildu beharko dute, aukera izan dezaten bazterkeriazko errealitate batekin harremanetan jartzeko eta/edo eraldaketa politiko-sozialeko prozesuak gertutik ikusteko. Horretarako, partaideek esperientziaren bilaketa aktiboa egingo dute, programa honen koordinazioaz arduratzen direnek emandako irizpide batzuk kontuan hartuz.

Esperientzian partaideek programaren koordinatzailearen laguntza izango dute une oro: zer eremutan parte hartuko duten aukeratzeko lagunduko die, eta egingo diren jardueretarako gakoak emango dizkie. Ebaluazioa egiteaz ere arduratuko da, bai partaidea hartuko duen erakundeak partaideaz egingo duenaz, bai partaideak berak egingo duenaz ere.

Programa honetan parte hartuko dutenen profila kontuan hartuz, eta aurreikusitako gaitasunak garatu ditzaten, esperientzien parte handi bat eragin politiko, mobilizazioa eta/edo errealitatearen azterketa izango dira. Erakundeak eta instituzioak aukeratzeko, kontuan izango dugu aukera eman behar dutela baztertuta dauden kolektiboekin harremanetan jartzeko, eta, areago, justiziarekin, demokraziarekin eta/edo herritarren partaidetzarekin lotutako kontuei buruz gogoeta egiteko edo horrelako gaitan ekiteko.

Gogoan darabilgun aukera bat laneko udalekuak dira. Esperientzia guztia astebetean edo bitan egingo litzateke, eta partaidea erabat murgilduko litzateke esperientzian, gizarte-bazterkeriako testuinguru batean laguntzen.



8. modulua

Estrategiak

Herritarren partaidetzako modulua

Esperientzia praktikoa (bakarkakoa)

33 ordu

Prestakuntza egin bitartean paraleloki egin daiten esperientzia, edota modu intentsiboan, hala nola laneko udaleku batean.


ORDUAK GUZTIRA

33: esperientzia praktikoa

## IZEN-EMATEA

Izen ematea formalizatzeko beharrezkoa da erregistro inprimakia betetzea, matrikularen ordainketa egitea eta elkarrizketa labur bat egitea (presentziala, telefonoz edo Skype-z izan daiteke).

<https://alboan.civi-go.net/civicrm/event/info?reset=1&id=14>



Eskariak jaso ahala esleituko dira tokiak. Plaza kopurua mugatua da. Kurtsoa gazteleraz izango da.

Kurtsoa bukatzen duten pertsonak ALBOAN-ek eta Deustuko Unibertsitatearen Etika Aplikatuko Zentroak ziurtatutako prestakuntza programa egin izanaren aitortpena jasoko dute.

## BALDINTZA EKONOMIKOAK

Matrikularen kostua 80 eurokoa da. Prezioan Loiolako bi asteburuen egonaldia eta mantenua barne sartzen da, baina desplazamendua ez da sartzen.

## ZALANTZAK ETA ARGIBIDEAK:

Ikastaroari buruzko edozein zalantza izatekotan, Alvaro González-ekin harremanetan ipini, [a.gonzalez@alboan.org](mailto:a.gonzalez@alboan.org) posta elektronikoaren bidez edo **944 151 135** telefonoan.



### ANTOLATZAILEAK:



**Deusto**

Centro de Ética Aplicada  
Etika Aplikatuko Zentroa



**ALBOAN**

ONGD promovida por los jesuitas  
Jesuitak bultzatutako GKE

### LAGUNTZAILEAK:



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VAŠCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa